



### 3. LANABESA: IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA

Irakur itzazu arretaz ondorengo baieztapenak eta balora ezazu zure adostasun maila, 1etik (ez nago batere ados) 4ra (erabat ados nago).

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA				
✓ Ikastetxeko prozesu berritzaileak gidatuko dituen zuzendaritza-taldea lortzeko ahaleginak egiten dira.	1	2	3	4
✓ Ikasleen heldutasun pertsonala, elkar bizitza egokia, zuzentasuna eta genero berdintasuna lortzea dira gure ikastetxeko heziketa ardatzak betiere, heterogeneotasun eta inklusio irizpideak aplikatuz.	1	2	3	4
✓ Ikastetxeak genero berdintasunari buruzko prestakuntza-programa bat dauka; ikasle, AZL, eta familiei zuzendutako ekintzak prestatzen dituena.	1	2	3	4
✓ Autoanaliaren eta ebaluazioaren bitartez gure ikastetxearen hobekuntza sustatzen da.	1	2	3	4
✓ Ikastetxea eremu seguru eta eroso bat da eta genero bereizketarik gabe modu osasuntsuan bizi eta elkarrekin bizi daiteke.	1	2	3	4
✓ Ikastetxearen heziketa-proiektuak (IHP) hezkidetzeta-helburuak biltzen ditu: xedeak, orientazio metodologikoak, partaidetza eta abar.	1	2	3	4
✓ Ikastetxearen curriculum-proiektuak (ICP) generoari buruzko ikuspuntua duten helburu eta edukiak, hezkidetzeta -metodologia eta abar biltzen ditu.		2	3	4
✓ Bizikidetzeta planak honako hauek aintzat hartzen ditu: hezkidetzeta neurriak, genero gatazkei zuzendutako protokoloak, ikasgeletako eta ikasgeletatik kanpoko interakzioak eta abar.	1	2	3	4
✓ Tutoretza-planak beste batzuen artean, ondorengo sailak biltzen ditu: afektibitate eta sexu-heziketa, (heterosexualitatea, homosexualitatea...), erantzunkidetasuna eta zaintza, lanbiderako orientabide ez sexista eta abar.	1	2	3	4
✓ Gure AJA hezitzailea, inklusiboa eta ez sexista da.	1	2	3	4
✓ Ikastetxearen urteko memoriak eta planak, aurreko dokumentuetan aipatutako alderdiak garatzeko ekintzak bildu eta ebaluatzen ditu	1	2	3	4
✓ Ikastetxeak erakunde ezberdinekin dituen komunikazio ofizialetan (Hezkuntza-administrazioa, GKEak, Udala, Aldundia...) eta familiekin harremanetan jartzerakoan kontuan hartzen da hizkera ez sexista erabiltzea.	1	2	3	4
✓ .Irizpide argiak daude eskola-elkarteko kideen artean erabiltzen diren termino edo esapide sexistak zuzentzeko.	1	2	3	4
✓ Ikasgeletan eta eremu komunetan (jangela, liburutegia, ordenagailu gela, gimnasioa, laborategiak...) sexuen arteko berdintasuna zaintzen da	1	2	3	4
✓ Neskek eta mutilek zeregin eta ardura berdinak dituzte ikastetxea prestatu, jaso eta dekoratzerakoan.	1	2	3	4
✓ Mutilak neskak baino gehiago nabarmentzen dira: jangelan, eskaileretan, jolastokian, sarrera eta irteeran...	1	2	3	4
✓ Jolastokiko guneei dagokienez, aldea sumatzen da neska-mutilen artean mutilek gune hoberenak hartzen baitituzte.	1	2	3	4
✓ Jolastokian egiten diren joko eta ekintzetan sexuen arteko interakzioa dago.	1	2	3	4
✓ Ikastetxeak eskaintzen dituen ekintza guztiak (osagarriak eta eskolaz kanpokoak) neska-mutilei zuzenduta daude inongo bereizkeriarik gabe.	1	2	3	4
✓ .Ikastetxeak hezkidetzeta eta genero berdintasunaren arduradun bat behar duela uste dut.	1	2	3	4

**IKASGELAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA/ IRAKASKUNTZA ESTILOA**

✓ Ikasgelan irakasleak neska eta mutilei egiten dizkie galderak, protagonismo bera ematen die.	1	2	3	4
✓ Neskek eta mutilek zeregin eta ardura berdinak dituzte ikasgelak prestatu, jaso eta dekoratzerakoan.	1	2	3	4
✓ Ikasgelan ikasleen antolamenduan esku hartzen da, neska eta mutilak elkarrekin nahas daitezzen bultzatzeko eta talde itxiak ez sortzeko.	1	2	3	4
✓ Taldearen garapena zaintzen da, hau da, partekatzea eta sexuen arteko berdintasuna eta lankidetzaren sustatzen da	1	2	3	4
✓ Neska-mutilek egindako lanei eta emaitzei dagokienez, espektatibak berdinak dira.	1	2	3	4
✓ Ikasgeletan ekintza positiboak egiten ditugu genero estereotipoak nabarmentzen dituzten egoerak saihesteko eta baita neska-mutileen eskubide eta zereginen desberdintasunak nabarmentzen dituzten egoerak saihesteko.	1	2	3	4
✓ Gelan adibideren bat jartzerakoan, gizon eta emakumeen tradiziozko irudia jartzea saihesten dut.	1	2	3	4
✓ Talde-lanetarako neska edo mutilak aukeratzen ditut bereizkeriarik gabe, taldeko koordinatzaile gisa, beste irizpide batzuk kontuan hartuta.	1	2	3	4
✓ Irakasten dudana ikasgaian emakumeen ekarpenak aipatzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
✓ Irakasleak tratu bera ematen die neska eta mutilei, tonu bera erabiltzen du...	1	2	3	4
✓ Irakasleak beti hartzen du kontuan generoa, klaseak bideratzeko garaian.	1	2	3	4
✓ Ez dut bereizketarik egiten neska eta mutilek egin beharreko zeregin espezifikoetara dagokienez.	1	2	3	4
✓ Ikasgelan ez dut beti maskulinoa erabiltzen neska-mutilengana zuzentzeko.	1	2	3	4
✓ Ikasgelako jardueretan aintzat hartzen da beti genero berdintasuna: hizkeran, irudietan...	1	2	3	4

**IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA PROZESUAK**

✓ Lan dokumentuak (programazioak, memoriak, ebaluazioak...) egiten parte hartzen dut eta ez dut hizkera sexista erabiltzen.	1	2	3	4
✓ Maskulinoa eta femeninoa kontuan hartzen ditut ikasgelan hitz egin eta idazterakoan, familiarekin harremanetan jartzerakoan, beste lankideekin, beste profesional batzuekin eta abar.	1	2	3	4
✓ Ikasgelan aztergai izan dugu hizkera ez sexistaren erabilera.	1	2	3	4
✓ Irakasleek ez dituzte genero estereotipaturiko esapideak erabiltzen (ez eseri mutila bazina bezala, ez ezazu nesken antzera jokatu...)	1	2	3	4
✓ Esaten edo idazten dutena zuzentzen didanean, garbi adierazten diet neskak eta mutilak aipatu behar direla, ez bakarrik mutilak	1	2	3	4
✓ Eskola eta institutuetan, hizkuntza-hezkuntzak hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzen duten trebetasun eta jarrerak izan behar ditu kontuan.	1	2	3	4
✓ Tradiziozko feminitate eta maskulinitatearen estereotipoak hautsiko dituzten irudiak erakustea bultzatzen da ikastetxean (gizon bat etxeko lanak egiten, neska gazte bat zientzialari gisa lanean...)	1	2	3	4



✓ Ikastetxearen errotuluetan gizonak eta emakumeak berdin izendatzen dituen terminoak erabiltzen dira.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Liburu, irudi edo bestelako materialek eduki sexista edukiz gero, ikasleen arreta erakartzen dut honen inguruan.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Material didaktikoa aukeratzeko irizpideetako bat, ez sexista izatea da.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Ekintzako protagonistak bai femeninoak eta bai maskulinoak izatea saiatzen naiz.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Bai emakumeak eta bai gizonak zientzia, historia, teknika, teknologia berriak, kirola, aisialdia kultura eta politikarekin lotura duten arloetan azaltzea saiatzen naiz.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Irudi femeninoak beti agertzen dira dagozkien izenekin.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Badaude egoerak non emakumezkoek, gizonezkoek baino ardura gehiago dituzten.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Emakume eta gizonak beren sexuko propietzat hartzen diren lanetara loturik ez agertzen saiatzen naiz.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Ikastetxean software ez sexista erabiltzen da.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
✓ Neska-mutilek abilezia eta trebetasun berdinak erakusten dituzte teknologia berriak erabiltzeko garaian.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>

Talde txikietan item bakoitzeko erantzunak adosten saiatuko gara, ondoren erantzun horiek 3a. lanabesean erabiltzeko.

## ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK